



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Administrazio Orokorreko Teknikariaren lau (4) plaza betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarri arautzaileak eta deialdia.

Urtarrilaren 16ko 112/2025 Alkatetza Dekretuaren bitartez, honako hau xedatu da:

Lehenengoa: Onestea 2024ko lan-eskaintza publikoetan jasotako Administrazio Orokorreko teknikariaren lau (4) plaza betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarri arautzaileak —ebazpen honi erantsita doaz—.

Bigarrena: Jarraian adierazitako plazei dagozkien hautaketa-prozesuetarako deialdia egitea. Horrek ez du eragotziko oinarrietako hirugarren klausulako aukera aplikatzea, zeinaren bidez deitutako plazen kopuruari gehitu ahalko baitzaizkio onartutakoen zerrenda argitaratu baino lehen onetsitako lan-eskaintza publikoetan jasotako lanpostu hutsak. Hona hemen plazen zerrenda:

ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA

Plaza	Azpieskala	Azpitaldea	Zk.	Txanda	HE	Derrigort. data
Administrazio Orokorreko teknikaria	Teknikoa	A1	4	Irekia	C1 (3. HE)	Bai

Hirugarrena: Oinarri orokorren eta espezifikoaren eduki osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, bai eta laburpen xehatua ere, Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Laugarrena: Dekretu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Administrazioarekiko Auzien Bilboko Epaitegian, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Dekretua argitaratzen den dataren biharamunetik bi hilabeteko epean. Bestela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoan. Hala xedatzen du Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztaillaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat.

Basaurin, 2025eko urtarrilaren 21ean. —Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



ERANSKINA

**ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALAN, TEKNIKARIEN AZPIESKALAN,
ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIEN KATEGORIAN KARRERAKO
FUNTZIONARIO IZATEKO DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK****Lehena. — Deialdiaren xedea eta deitutako plazak**

Oinarri hauen xedea da Basauriko Udaleko plantillako lanpostuetan, oposizio sistemaren bidez, karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaprobeen deialdia arautzea. Geogo zehaztuko da zein plaza diren.

Bigarrena. — Aplikatzea dagokion araudia

Udal-plantillako plazak jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdiari honako arau hauek aplikatuko zaizkio:

- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzkoa.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Toki Administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete beharreko oinarrizko arauak eta gutxiengo programak ezartzen dituena.
- Osagarri gisa, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura langileak sartzeari eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 10/1982 oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatze-koa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatze-koa.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa-rena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta esku-bide digitalak bermatzeari buruzkoa.
- 16/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- Deialdiaren oinarri arautzaile hauek.

Eta arlo horretan indarrean dauden gainerako arauak.

**Hirugarrena. — Deitutako plazak**

Administrazio Orokorreko teknikari izateko lau (4) plaza betetzeko deialdia egiten da. Plaza horiek Administrazio Orokorreko Eskalakoak dira, Teknikarien Azpieskalakoak, Goi Mailako Teknikarien klasekoak, A1 Azpitaldekoak, eta txanda ireki bidez beteko dira.

Hautaketa-prozesua gainditu duten hautagaiak karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzeko unean hutsik dauden lanpostuen arabera zehaztuko da zerbitzua zein postutan emango den.

Deialdiaren plaza-kopurua handitu ahal izango da onartzen diren eta Alkatetzaren ebazpen bidez deialdi honi gehituko zaizkion lan-eskaintza publikoetako plaza hutsen bidez. Gainditu dutenen zerrenda argitaratu aurretik egin beharko da, hala badagokio, gehitze hori.

Laugarrena. — Betekizun espezifikoak

Zuzenbideko, Politika eta Administrazio Zientzietako, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako, Ekonomiako, Aktuariotza eta Finantza Zientzietako lizentziatura edo gradua edo baliokidea eduki behar da.

Oinarri orokorretan ezarritako gainerako baldintzak (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 141. zenbakia, 2022ko uztailaren 26koa) bete behar dira.

Betekizun horiek guztiak bete beharko dira eskaerak aurkezteko epea amaitzen den datan, eta hautaketa-prozedurak irauten duen bitartean mantendu beharko dira, izendapena egin arte.

Bosgarrena. — Azterketa-eskubideak

24,50 euro izango dira.

Zenbateko hori ordainketa-pasabidearen bidez ordaindu ahal izango da, Basauriko Udalaren Egoitza Elektronikokoaren bitartez: www.basauri.eus. Era berean, azterketa-eskubideak ordaintzeko, barra-kodedun ordainagiria deskargatu daiteke eta dokumentu horretan ageri diren Basauriko Udalaren erakunde laguntzaileen edozein bulegotan aurkeztu.

Nolanahi ere, eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira azterketa-eskubideak.

Seigarrena. — Eskabideak**1. Aurkezteko modua**

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek Internet bidez egin beharko dute eskaera, Basauriko Udalaren egoitza elektronikokoaren bidez eskuratu daitekeen eredu ofizialean: <https://egoitza.basauri.eus/es>

Eskabideak helbide elektronikoko horretan ezarritako prozedura elektronikokoaren bidez aurkeztu beharko dira. Baldintzak betetzen direla behar bezala adierazteko, zerrenda eta identifikazioa egin beharko dira hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen den eskaera-orrin. Eskaerarekin batera ez da aurkeztu beharko baldintza horien egiaztagirien kopiarik, Epaimahaiak edo Giza Baliabideen Arloak eskatzen dituen unean egiaztatu beharko baitira.

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatutako edozein bulegotan ere aurkeztu ahalko dira eskabideak.

Hautagaiek eskabidearen atal guztiak bete beharko dituzte, eta eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi, laugarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

Horretarako, hautagaiek honako hauek jaso beharko dituzte eskabideetan:

- Datu pertsonalak.
- Oposizio-faseko azterketak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten: euskaraz ala gaztelaniaz.
- Deialdian parte hartzeko baldintza gisa eskatu den titulazio akademiko ofiziala.



- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna, halakorik badute. Bestela, deialdi honen 9. oinarrian, laugarren azterketari dagokion atalean, ezarritako moduan eta epean egiaztatuko da hizkuntza-eskakizuna.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak berekin dakar, halaber, baimena ematea Udaleko Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuko langileek, eskatutako gaitasun funtzionala egiaztatzeko, egokitzen dituzten kontrolak edo azterketak egiteko hautaketa-prozesuaren edozein unetan.

2022ko uztailaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (141. zenbakia) argitaratutako oinarri orokorren hamalagarren oinarrian, lan-poltsak egiteari buruzkoan, aurreikusitako ondorioetarako, oinarri hauetan aipatzen diren hautaketa-prozesuak direla eta, hautagaiak prozesu horietan parte hartzeko, eskaeran adierazi beharko dute baimena ematen dutela Administrazio Publikoko beste erakunde batzuei lagatzeko honako hauei buruzko datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila. Datuen horiek lagatzearen helburu bakarra eta eskusiboa izango da horien bitartez enplegu-eskaintzak legez aurreikusitako baldintzetan egin ahal izatea.

2. *Aurkezteko epea*

Eskaerak aurkezteko epea 20 (hogei) egun baliodunekoa izango da, deialdi honen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ondorio horietarako, igandeak eta jaiegunak ez ezik, larunbatak ere ez dira egun balioduntzat hartuko.

3. *Eskaerak ez onartzea eta zuzentzea*

Eskaera behar den epean eta moduan aurkezten ez bada, eta ezarritako tasa ordaintzen ez bada, hautagaiak baztertu egingo da, zuzentzeko aukerarik gabe.

4. *Datuak babestea*

Oinarri hauen xede den hautaketa-prozesuan parte hartzeak esan nahi du hautagaiak baimena ematen duela eskaeran jasotako datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA eta prestakuntza-maila) tratatzeko, eta, beraz, datu horiek aldizkari ofizialetan, iragarki-tauletan, web-orrian eta, oro har, hautaketa-prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein bitartekotan argitaratzeko, bai eta IVAPek edo erakunde eskudunak euskararen edo beste edozein hizkuntzaren ezagutza-maila egiaztatzeko ere, eta, oro har, Epaimahaiak, erakundeak edo enpresak berak, hala badagokio, hautaketa-prozesuari dagozkion probak behar bezala prestatzeko eta gauzatzeko behar diren datuak egiaztatzeko.

Publikotasun-printzipioak arautzen du oinarri hauen xede den hautaketa-prozesua, eta, beraz, ez da eskabiderik onartuko hautagaiak ez badu baimendu bere datuak aurreko paragrafoan adierazitako edukiarekin eta helburuetarako erabiltzea.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, eta, hartarako, honako helbide honetara idatzi beharko dute: Langileen Atala, Kareaga Goikoa, 52, 48970-Basauri, edo dpd@basauri.eus helbide elektronikora.

Zazpigarrena. — Hautagaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko da, ebazpen bidez. Zerrenda horretan, hautagaien izena eta bi abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia — Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera —, eta, hala badagokio, ez onartzeko arrazoia agertuko dira.

Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta Udalaren web-orrian eta iragarki-taulan jarriko da. 10 eguneko epea emango da kanporatzeen aurka erreklamatzeko eta baztertea eragin duten akatsak edo dokumentuak zuzentzeko.



Akatsak zuzentzeko epe hori igarotakoan, aurkeztu diren erreklamazioak ebatziko dira eta behin-behineko zerrendaren modu berean argitaratuko da emaitza.

Onartuen eta baztertuen eta atzera egin dutenen behin betiko zerrendak onartzen dituen ebazpenaren aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango da, hilabete bateko (1) epean, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztutako errekurtsua ez bada ebatzi probak egin behar diren datarako, interesa duten hautagaiak kautelaz egin ahal izango dituzte probak. Kautelaz egindako azterketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsua ezesten bada.

Onartuen eta/edo baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzen denetik aurrera, hautaketa-prozesuan zehar egin beharreko iragarpen guztiak Udalaren web-orrian eta iragarki-taula elektronikoa argitaratuko dira.

Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei hautaketa-prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Azkenean hautagaia hautatzen bada, izendapenaren aurretik aurkeztu behar den dokumentaziotik baldintzaren bat betetzen ez duela ondorioztatzen bada, prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko ditu. Hautaketa-prozesuko edozein unetan, Epaimahaiak jakiten badu hautagairen batek ez duela betetzen deialdian parte hartzeko eskatutako baldintzaren bat, interesdunari entzun eta gero, hura prozesutik baztertzeko proposatu beharko dio organo eskudunari, eta hautagaiak parte hartzeko eskabidean adierazitako zehaztasunik ezak edo faltsukeriak jakinaraziko dizkio.

Zortzigarrena.— Epaimahaia

Indarrean dagoen legerian eta Basauriko Udaleko karrerako funtzionarioak aukeratzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten indarreko oinarri orokorretan xedaturikoaren arabera, Epaimahaiak epaimahaiburu bat, idazkari bat eta lau bokal izango ditu, eta horien artean nahitaez egongo da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatutako pertsona bat.

Epaimahaiaren osaera teknikoa izango da gehienbat, eta espezialitate-printzipioak gidatuko du; beraz, haren kide guztiek deialdiko plazetan sartu ahal izateko eskatzen den maila akademiko bereko edo goragoko titulazioa eduki beharko dute, eta kideen erdiek, gutxienez, bete beharreko lanpostuen jakintza-arlo berekoak izan beharko dute. Era berean, egokia ez dela justifikatu ezean, sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkaritza izan behar du.

Euskara-maila neurtzeko probari dagozkion Epaimahaiko kideek horretarako baka-rrik izango dute balioa, berariaz besterik xedatzen ez bada.

Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 27.4 artikulua xedaturikoaren arabera, epaimahakideen erdiek gutxienez, deialdiaren xede diren lanpostuei nagusiki dagokien mailaren hizkuntza-eskakizuna edo handiagoa egiaztatuta izan beharko dute.

Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik, hark ez baitu botorik izango. Epaimahaiaren erabakiak bertan daudenen botoen gehiengoz hartuko dira, eta, berdinketa gertatuz gero, epaimahaiburuaren botoak ebatziko du.

Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta Korporazioko lehendakariari jakinaraziko diote, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, eta hautagaiak errefusatu ahal izango dituzte, aipatutako lege horren 24. artikulua xedaturikoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen denean.

Ezin izango dute epaimahakide izan deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaprotetan parte hartzeko hautagaiak prestatzeko lanak egin dituztenek, ez eta aldi horretan deialdiko plazen arlo funtzional bereko oposizioak prestatzeko zentzoren batekin edozein modutan lankidetzan aritu direnek ere.

Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izenen zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, hautaketa-prozesuan onartutakoaren eta baztertutakoaren zerrendarekin batera, Alkatetzaren ebazpen bitartez haiek izendatu ondoren.



Epaimahaiak behar diren neurriak hartuko ditu konfidentzialtasuna bermatzeko. Azterketak zuzentzerakoan, hautagaien anonimotasuna zaindu beharko da.

Bederatzigarrena. — Hautaketa-prozedura

Hautagaiak oposizio bidezko sarbide libreko sistemaren bidez hautatuko dira. Lau azterketa egongo dira, eta praktikaldiarekin osatuko da prozedura.

Oposizio-fasean, beraz, lau azterketa egingo dira: lehenengo hirurak derrigorrezkoak eta baztertzailerak izango dira, eta laugarrena euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko izango da. Azterketa hori derrigorrezkoa eta baztertzailerak izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna daukaten plazetarako, eta, hala badagokio, gainerako plazetarako, borondatezkoa eta ez-baztertzailerak izango da.

Lehenengo azterketa

Idatziz garatu beharko da gai orokor bat. Gehienez ere bi ordu izango dira, eta gaia Epaimahaiak erabakiko du, azterketa egin baino lehen. Deialdiaren eranskinean dagoen programarekin lotua egongo da, epigrafe bera izan ez arren. Hautagaiak askatasun osoa izango dute beren azalpena egiteko.

Azterketa horretan, hautagaiaren unibertsitate-prestakuntza orokorra baloratuko da, bai eta ideien argitasuna eta antolamendua, idazteko erraztasuna, hautagaiaren ekarpen pertsonala eta laburpenak egiteko gaitasuna ere.

Hautagaiak azterketa irakurtzea erabaki ahalko du Epaimahaiak. Irakurraldi hori publikoa izango da, eta Epaimahaiak adieraziko ditu egunak eta orduak.

Bigarren azterketa

Ahoz erantzun beharko dira lau gai, gehienez ere berrogei minutuan, deialdiaren eranskinean dagoen programatik ausaz aterako direnak: bat, administrazio-zuzenbide orokorrekoa; bat, Tokiko eta Foru Administrazio zuzenbidekoa; bat, administrazio-zuzenbide berezikoa, eta, bat, finantza- eta zerga-zuzenbidekoa.

Azterketa hori publikoa izango da, eta hautagaiak hamar minutu izango ditu gaien laburpena prestatzeko, ahoz azaltzen hasi aurretik.

Gaiei buruzko ezagutzak baloratuko dira. Lehen bi gaiak azaldu ondoren edo 20 minutu igaro direnean, Epaimahaiak ikusten badu hautagaiaren azalpena nabarmenki urria dela, azterketa uzteko eskatu ahal izango dio.

Gai guztien azalpena bukatuta, Epaimahaiak gai horien arloei buruz hitz egin ahal izango du hautagaiarekin, bai eta azalpen osagarriak eskatu ere. Elkarrizketa hori 10 minutukoa izango da gehienez ere.

Hirugarren azterketa (praktikoa)

Idatziz egin beharko da, gehienez ere lau ordutan. Epaimahaiak azterketa hasi aurretik lanpostuko eginkizunekin edota eranskineko gai-zerrendako arloekin zerikusia daukaten gai batzuk aukeratuko ditu, eta horiek ebazteko txosten bana edo batzuk idatzi beharko dira.

Azterketa horretan, hautagaiak paperatan ekarri dituzten lege-testuak erabili ahalko dituzte. Ezingo da inolako gailu edo euskarri elektronikorik erabili.

Proba horretan, arrazoiketarako gaitasuna, planteamenduaren sistematika eta ondorioen formulazioa, eta aplikatu daitezkeen arauen ezagutza eta interpretazio egokia baloratuko dira, batez ere.

Laugarren azterketa (euskarako proba)

Derrigorrezkoa eta baztertzailerak, euskarako derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna duten plazen kasuan. Gainerako plazetarako, borondatezkoa izango da eta ez da baztertzailerak izango.



Euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da, Epaimahaiak erabakitako eran. Horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideak erabiliko dira, halaxe ezartzen baitu indarrean dagoen legeriak.

Honako hauek ez dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azterketa egin beharko: IVAPen 3. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C-1 jakintza-mailaren titulu edo egiaztagiriren bat dutenak eta beren hizkuntza-eskakizuna Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistroan egiaztatua dutenak. Era berean, ez da egiaztagiri akademikorik aurkeztu beharrik izango euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta -ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan, baldin eta salbuespen hori jasota badago Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan.

Aukera horretatik kanpo geratzen dira, eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute, aipatutako 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenek, baldin eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasota ez badaude.

Nolanahi ere, euskarako edozein titulu edo ziurtagiri egiaztatzeko gehieneko epea euskarako azterketa egiten den data izango da.

Egin beharreko egiaztapenak egiteko, interesdunak berariazko baimena emango dio Basauriko Udalari, ziurtagiria edo haren salbuespena erregistro horretan egiaztatu dezan. Nolanahi ere, interesdunak bere datuak kontsultatu ahal izango ditu Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan, esteka honen bidez: <https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>

Hirugarren oinarrian aurreikusitako kasuan, deialdia zabaltzen bada hura egin ondoren sortutako beste plaza huts batzuetara, derrigortasun-data igarota ez badute, IVAPek emandako 2. edo 3. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B-2 edo C1 mailarekin parekatutako euskararen jakite-maila egiaztatzen duten titulu edo ziurtagiriren bat baldin badute, geroago adieraziko den puntuazioarekin baloratuko da hizkuntza-eskakizun hori, baldin eta azterketa hau egin aurretik egiaztatu bada, aurreko paragrafoetan aurreikusitako moduan, bestela ez baita baloratuko.

Lehenengo, bigarren eta hirugarren azterketak derrigorrezkoak eta baztertzailak izango dira, eta honela kalifikatuko dira: lehen azterketa, 0,00 eta 10,00 puntu artean; bigarren azterketa, 0,00 eta 20,00 puntu artean, eta, hirugarren azterketa, 0,00 eta 20,00 puntu artean. Era berean, automatikoki kanporatuko dira gehieneko puntuazioaren erdia gutxienez lortu ez duten hautagaiak, hau da, 5,00 puntu lehen azterketan, eta 10 puntu bigarren eta hirugarren azterketetan.

Laugarren azterketa: euskarako proba. «Gai» edo «ez gai» izango da kalifikazioa derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuei lotutako plazetara aurkeztzen diren hautagaien kasuan, eta, gainerako plazen kasuan, berriz, 10 punturekin kalifikatuko da 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea, eta 2,5 punturekin 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Gehieneko puntuazioa

Gehienez ere, 50 puntu lotu ahalko dira, euskarako proba kontuan hartu gabe.

Hamargarrena. — Hautaketa-prozesuaren garapena

1. *Hasiera*

Oposizio-faseko azterketak ezin izango dira hasi deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik bi hilabete igaro arte.

2. *Argitaratzea*

Oposizio-faseko lehen azterketa hasteko tokia, data eta ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren web-orrian eta iragarki-taula elektronikoan argitaratuko dira, hautaketa-prozesuan onartutakoan eta baztertutakoan behin betiko zerranda onartzen duen



ebazpenarekin batera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Ondorengo iragarkiak, oposizioaren gainerako azterketei buruzkoak, Epaimahaiak argitaratuko ditu Udalaren web-orrian eta iragarki-taula elektronikoan. Iragarki horiek jendaurrean jarri beharko dira hurrengo azterketa egin baino 48 ordu lehenago, gutxienez.

Era berean, azterketa bakoitzeko puntuazioak jendaurrean jarriko dira, Udalaren web-orrian eta iragarki-taula elektronikoan iragarrita.

3. *Deialdia*

Hautagaiei dei bakarra egingo zaie azterketa bakoitzerako. Dei egiten zaienean ez badira azterketetako edozeinetara aurkezten, automatikoki bertan behera geratuko da azterketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko duten eskubidea, eta, ondorioz, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira, behar bezala justifikatuta dauden eta Epaimahaiak askatasunez balioetsi dituen kasuetan izan ezik. Arau bera aplikatuko zaie derrigorrezko azterketetako edozein egitera hura egiten hasi ondoren aurkezten diren hautagaiei. Borondatezko probak egitera ez joatea edo berandu joatea proba horiei uko egitea izango da.

4. *Jarduteko ordena*

Behar izanez gero, Herri Administrazioarako Estatuko Idazkaritzak egingo duen zozketaren arabera zehaztuko da hautagaien jarduteko ordena, 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Zozketan ateratako letraz hasten den lehen abizena duen hautagairik ez badago, justu hurrengo letrek adieraziko dute jarduteko ordena, dagokionaren arabera.

5. *Azterketak berrikustea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioak.*

Oro har, bost (5) egun balioduneko epea ezarriko da egindako azterketen berrikuspenera eskatzeko, eta hamar (10) egun balioduneko epea azterketen kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko, biak Epaimahaiaren ebazpena argitaratzen den datatik zenbatzen hasita.

6. *Identifikazioa*

Epaimahai Kalifikatzaileak beti eskatu ahal izango die hautagaiei behar bezala identifika daitezen. Horretarako, oposizioko azterketa bakoitzean NANA edo beste edozein agiri ofizial aurkeztu beharko dute, Epaimahaiaren iritziz hautagaiaren nortasuna behar bezala egiaztatzen duena (pasaporte, gidabaimena, atzeritarren nortasun-zenbakia, etab.).

7. *Denborak eta bitartekoak egokitzea*

Epaimahaiak ahalmena izango du deialdi honetako azterketak egiteko denborak eta baliabideak beharrezkotzat jotzen duen gisan moldatzeko desgaitasunen bat egiaztatu eta eskabidean hala adierazi dutenentzat, betiere horrekin ez bada azterketaren edukia hutsaltzen, eta bertan eskatutako gaitasun-maila ez bada kaltetzen edo murrizten. Era berean, azterketak gainerako hautagaien baldintza berdinetan egiten direla bermatu beharko da. Hala egiteko xedatzen dute abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuaren 8. artikulua eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 74.4 artikulua.

8. *Haurdunaldia eta bularra ematea*

Haurdun dauden edo bularra ematen ari diren emakumeek egokitzen materialak eskatu ahal izango dituzte, aurretik jakinarazten badute, proba egin baino bost egun baliodun lehenago gutxienez, Langile eta Antolaketaren Atalean.

9. *Azterketen arteko tartea*

Oposizioko azterketa bakoitza amaitu eta hurrengo hasteko, 72 ordu igaro behar dira gutxienez, eta 45 egun gehienez. Hala ere, egokitzen jotzen badu, hainbat azterketa saio berean egitea erabaki ahal izango du Epaimahaiak.

**Hamaikagarrena. — Oposizioaren behin betiko kalifikazioa**

Hautaketa-prozesua osatzen duten proben kalifikazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak hautatutako behin betiko zerrenda argitaratuko du, oposizio-fasea gainditu dutenek lortutako puntuazioen baturak zehaztutako puntuazio-hurrenkeraren arabera. Zerrenda horrek ezingo du gainditu deitutako plaza guztien kopurua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta dagokion izendapen-proposamena egingo du, zerrenda hori Korporazioko lehendakariari bidalita. Horrekin batera, Epaimahaiak azken bilkuraren akta helaraziko dio agintari horri, non proba guztiak gainditu baina plazarik lortu ez duten hautagai guztiak agertuko dira, puntuazioaren arabera antolatuta. Hori guztia, plaza lortu dutenetako bat lanpostuaz jabetzen ez den kasurako bakarrik egingo da, eta azken zerrenda horretan sartzeak ez du ekarriko beste eskubiderik edo itxaropenik, oinarri orokor hauen bederatzigarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarak Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1 a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaie emakumeak %40 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Aurreko paragrafoan araututakoari kalterik egin gabe, berdinketak bere horretan jarraitzen badu, hurrenkera honela ezarriko da: lehenik eta behin, oposizioko azken azterketan (praktikoa) puntuazio handiena lortu duenaren alde; bigarrenik, oposizioko azken aurreko azterketan (ahozkoa) puntuazio handiena lortu duenaren alde; hirugarrenik, oposizioko lehen azterketan (teorikoa) puntuazio handiena lortu duenaren alde.

Hamabigarrena. — Onartutako zerrenda eta izendapen-proposamenak**1. Azterketak gainditu dituztenen zerrenda argitaratzea**

Oposizioko azken azterketa amaitu ondoren, gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du Epaimahaiak, puntuazioaren arabera antolatuta, eta, zerrenda horretan, oposizioko azterketen kalifikazioak agertuko dira.

2. Hautatutako zerrenda

Hautaketa-prozesua osatzen duten proben kalifikazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak hautatutako behin betiko zerrenda argitaratuko du, puntuazio-hurrenkeraren arabera antolatuta. Zerrenda horrek ezingo du gainditu deitutako plaza guztien kopurua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78.6 artikuluan ezarritakoaren arabera. Era berean, praktiketako funtzionario izendatzeko proposamena egingo du Epaimahaiak, eskumena duen organoari zerrenda bidalita. Aldi berean, azken bilkuraren akta bidaliko da. Akta horretan, puntuazioaren arabera antolatuta, proba guztiak gainditu eta deitutako plaza-kopurua gainditzen duten hautagai guztiak agertuko dira. Hori guztia plaza lortu dutenetako bat lanpostuaz jabetzen ez den kasurako bakarrik egingo da, eta azken zerrenda horretan sartzeak ez du ekarriko beste eskubiderik edo itxaropenik.

Behin hautaketa-prozesua amaituta, destinoak aukeratuko dira, hautagaiak hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapenean dauden hurrenkeraren arabera, eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 71.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

3. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesua gainditu duten baina plazarik eskuratu ez dutenen zerrenda lehentasunezkoa izango da Udalaren aldi baterako beharrei erantzuteko, indarrean dagoen araudiaren araberrako bitarteko funtzionarioak izendatuta. Aipatutako zerrenda horren ondoren, lehenengo azterketa gainditu duten eta bigarren azterketan gutxienez



7 puntu (20 puntutik) lortu dituzten hautagaiak egongo dira, azterketa horietako bakoitzean lortutako puntuazio handienaren hurrenkeran. Azkenik, lehenengo azterketa bakoirik gainditu duten eta bigarren azterketan gutxienez 7 puntu lortu ez dituzten hautagaien zerrenda egongo da, azterketa horietako bakoitzean lortutako puntuazio handienaren hurrenkeran.

4. *Epaimahaien ebazpenak*

Epaimahai Kalifikatzaileen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egitea dagokion organoarentzat, hargatik eragotzi gabe organo horrek ebazpena berrikusi ahal izatea, indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitakoaren arabera.

Hamahirugarrena.— Dokumentuak aurkeztea

Oinarri orokorren hamargarren oinarrian xedaturikoa beteko da.

Hamalagarrena.— Praktikaldia eta izendapena

Hautaketa-prozesuko beste fase bat izango da praktikaldia: oposizioa puntuazio handienarekin gainditu duten hautagaiak egingo dute. Haien kopuruak ez du gaindituko guztira deitutako plazen kopurua.

Fase hori, haiek atxikita dauden sailean egingo dute, sei hilabetez, behar bezala iragarriko den datan.

Ebaluazio-prozedura jarraitua izango da praktikaldian zehar, eta eten egingo da soilik hamabost egun natural gainditzen dituzten absentsia justifikatuen kasuan, aldi horretan puntualki edo metatuta gertatu direnean. Kasu horretan, ezarritako praktikaldi osoa bete beharko du eragindako pertsonak.

Izendatzen diren hautagaiak praktiketako funtzionario izango dira, udal-langileen ordainsariak arautzen dituen akordioan adierazitako ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute, eta alta emango zaie praktiketako funtzionarioei aplikatu beharreko Gizarte Segurantzako erregimenean.

Egoera horrek iraungo du izendapen-ebazpenean adierazitako datatik lanpostua jabetzan hartu arte edo praktikaldi horretan deskalifikatu arte.

Praktiketako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzea Korporazioak ezarritako egunean edo egunetan egingo da. Adierazitako epean bidezko arrazoirik tartean izan gabe karguaz jabetu ez direnek karguari uko egin diotela ulertuko da, eta eskubide guztiak galduko dituzte. Kasu horretan, Alkatetzak praktiketako funtzionario izendatzeko proposamena egingo du hautaketa-prozesu osoa gainditu eta uko egite horren ondorioz deitutako plaza-kopuruan lekua dutenen alde.

Praktikek dirauten bitartean, etengabe ebaluatuko dira deialdiaren xede den lanpostuari dagozkion funtzioak eta zereginak behar bezala betetzeko behar diren trebetasunak eta abileziak.

Hautagaiari «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango zaio, eta hautaketa-prozesuko fase hori gainditzeko gai kalifikazioa lortu beharko da.

Praktikaldia amaitutakoan, oinarri orokorren hamaikagarren oinarriaren arabera eraturako ebaluazio-batzordeak txosten bat egingo du hautagai bakoitzaren gaitasunari eta baldintzei buruz, eta eskatutako gaitasun-maila lortu duela uste duen ala ez adieraziko du. Txosten hori hautaketa-prozesuko Epaimahai Kalifikatzaileari helaraziko zaio. Epaimahai horrek, txostena ikusita, praktikaldia gainditu den ala ez erabakiko du, eta aldi hori gainditu duten hautagaiak izendatzeko proposamena egingo dio Alkatetzari.

Praktikaldiko edozein unetan, hautagaiaren izendapena baliogabetu ahal izango da, baldin eta hautagaiak ez baditu betetzen behar bezalako gaitasun- edo aprobetxamendu-baldintzak, ataleko buruak hautaketa-prozesuko Epaimahai Kalifikatzaileari igorritako proposamenaren bidez. Epaimahaiak, proposamen hori ikusita, izendapena baliogabeteza bidezkoa den ala ez erabakiko du, eta dagokion proposamena helaraziko dio Alkatetzari.

**Hamabosgarrena. — *Behin betiko izendapena***

Basauriko Udaleko karrerako funtzionarioen izendapena Alkatzaren uztailaren 1eko 2377/2022 Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorren hamabigarren oinarrian ezarritakoaren arabera egingo da.

Hamaseigarrena. — *Lanpostuaz jabetzea*

Udal organo eskudunak proposamena onartu ondoren, behin betiko izendatutakoek karguaz jabetu beharko dute, eta Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1 c) artikuluan eskatzen den betekizuna bete beharko dute, izendapena jakinarazten zaienetik hogeita hamar eguneko epean.

Adierazitako epean bidezko arrazoirik tartean egon gabe lanpostuaz jabetu ez direnak kargua utzitako gisa geratuko dira, karguari uko egin diotela ulertuko da, eta eskubide guztiak galduko dituzte. Kasu horretan, Korporazioko lehendakariak praktiketako funtzionario izendatzeko proposamena egingo du hautaketa-prozesu osoa gainditu, balorazio onena lortu eta uko egitearen ondorioz deitutako plaza-kopuruan lekua dutenen alde. Hori guztia oinarri hauen hamargarren oinarrian xedatutakoari jarraiki.

Karrerako funtzionario izendatutakoek lanpostua hartzeko unean lanpostua gordezko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatzen badute, hutsik uzten dituzten plazak esleitu ahal izango dira. Horretarako, Epaimahai Kalifikatzaileak praktiketako funtzionarioen izendapen osagarriko egindako proposamena erabiliko da, aurreko paragrafoan zehaztutako prozeduraren arabera.

Hamazazpigarrena. — *Aurkaratzeko bideak*

Oinarri hauen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtoa jarri ahalko da Basauriko Udaleko Alkatzan, hilabeteko epean; edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahalko dira Administrazioarekiko Auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, biak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren datatik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.



ERANSKINA

GAI-ZERRENDA

LEHENENGO ZATIA

ZUZENBIDE POLITIKO ETA KONSTITUZIONALA

1. gaia: Konstituzioa: kontzeptua, izaera eta motak. Espainiako 1978ko Konstituzioa: egitura eta printzipio orokorrak. Botere-banaketa. Koroa Konstituzioan.

2. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioan jasotako funtsezko eskubide eta betebeharrak. Horien bermeak eta indargabetzea. Horien babesa.

3. gaia: Botere legegilea. Gorte Nagusiak. Herriaren Defendatzailea. Arartekoa. Kontuen auzitegia.

4. gaia: Botere Judiziala. Justiziaren erregulazio konstituzionala. Justizia Administrazioaren antolaketa Espainian: jurisdikzio ordenak, jurisdikzio-organoen motak eta haien eskumenak.

5. gaia: Estatuaren lurralde-antolakuntza. Autonomia-erkidegoak. Autonomia-estatuak: esanahia eta funtsezko edukia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Aurrekari historikoak. Indarrean dagoen Estatutua: egitura. Estatutuaren erreforma: a) Konstituzioaren arabera; b) Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren arabera. Prozedura arrunta eta prozedura bereziak.

6. gaia: Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketa. Eskumenen banaketa Konstituzioan eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan.

7. gaia: Eusko Legebiltzarra: osaera eta funtzionamendua. Lege autonomikoak. Lege-dekretuak eta legegintzako dekretuak. Legeak egiteko prozesua. Legegintza-ekimena. Legegintza-ahalaren mugak.

8. gaia: Euskara Estatutuan. 10/1982 oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskarearen Erabilera Normalizatzekoa. Hizkuntza-eskakizunen azterketa: araubide juridikoa eta haren aplikazioa.

9. gaia: Genero-politikak. Emakumearen sustapena. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu batagina onartzen duena.

10. gaia: Europar Batasuna: jatorria eta bilakaera. Europako Erkidegoko erakundeak, antolaketa eta eskumenak. Eskualdeetako Lantaldea.

11. gaia: Europako Erkidegoko antolamendua. Eraketa eta ezaugarriak. Tratatuak eta zuzenbide eratorria. Europako Erkidegoko zuzentarauak eta erregelamenduak. Erkidegoko zuzenbidea eta estatu kideen zuzenbidea. Erkidegoko zuzenbidea eta autonomia-erkidegoak. Toki Autonomiaren Europako Gutuna (1985eko urriaren 15ekoa). Edukia. Posizioa eta esanahia iturri-sisteman.

12. gaia: Laneko Arriskuen Prebentzioa: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa; eta 39/97 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuei buruzkoa.

13. gaia: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen, zeinaren bidez indargabetu egiten baita 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra). 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzekoa. 16/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena.

14. gaia: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoak eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Gobernu irekia, gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte-hartzea Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean.



BIGARREN ZATIA

ADMINISTRAZIO-ZUZENBIDE OROKORRA

1. gaia: Administrazioa legearen eta zuzenbidearen menpe jartzea. Zuzenbide publikoaren iturriak. Legea: lege-motak.
2. gaia: Erregelamendua: kontzeptua eta motak. Egiteko prozedura. Erregelamendua egiteko ahalaren mugak eta legez kanpoko erregelamenduen aurkako defentsa. Zerbitzuko jarraibideak eta aginduak.
3. gaia: Administrazio Publikoaren posizio juridikoa. Administrazio-ahalak. Ahalmen diskrezionala eta arautua.
4. gaia: Administrazio-antolaketa. Antolatzeko ahala. Administrazio-organoak. Kontzeptua eta motak. Kide anitzeko organoen kontsiderazio berezia.
5. gaia: Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak. Administrazio-egintzaren elementuak.
6. gaia: Administrazio-prozedurei buruzko xedapen orokorrak eta prozedurak erregulatzeko arauak. Interesdunak administrazio-prozeduran dituen eskubideak. Prozeduraren hasiera, antolamendua eta instrukzioa.
7. gaia: Prozedura amaitzea. Ebazteko betebeharrak. Ebazpen espresuaren edukia: kongruentzia-printzipioa eta hasierako egoera ez larriagotzeko printzipioa. Amaiera itundua. Administrazio-isiltasunaren araubidea. Atzera egitea eta uko egitea. Iraungitzea.
8. gaia: Administrazio-egintzen eraginkortasuna: adierazpeneko autotutoretzaren printzipioa. Bete beharra eta etendura. Jakinarazpena: edukia, epea eta praktika. Jakinarazpen hutsegina. Argitalpena.
9. gaia: Administrazio-egintzaren baliogabetasuna. Erabateko deuseztasun eta deuseztagarritasun kasuak. Administrazio-egintzaren kontserbazio-printzipioa. Administrazioak berak egintzak eta xedapenak berrikustea. Deuseztasun-akzioa. Kaltegarritasun-deklarazioa. Egintzak errebokatzea. Errakuntza materialak edo egitezkoak zuzentzea.
10. gaia: Administrazio-errekurtsoak. Kontzeptua. Printzipio orokorrak eta motak. Araubide juridikoa. Administrazio-errekurtsoen ordezkari prozedurak: adiskidetzea, bitartekaritza eta arbitrajea.
11. gaia: Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Erregulazioa. Alderdiak. Aurkaratu daitezkeen egintzak. Prozedura orokorra. Epaia eta betearaztea. Prozedura bereziak.
12. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa: eremu objektiboa eta eremu subjektiboa. Kontratu-motak zedarritzea. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak. Erregulazio harmonizatuko kontratuak.
13. gaia: Kontratuaren alderdiak. Kontratazio-organoa, toki-eremuko eskumenak, kontratazio-mahaia eta kontratatzailearen profila. Kontratatze gaitasuna, kaudimena eta debekuak.
14. gaia: Sektore publikoko kontratazioari buruzko xedapen orokorrak. Kontratazioaren arrazionaltasuna eta funtsa. Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxieneko edukia. Kontratu burutzea eta kontratuaren forma. Baliogabetasun-araubidea. Kontratazio arloko errekurtso berezia. EAEko KEA Oren (Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa) aipamen berezia.
15. gaia: Xedea, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, balio zenbatetsia, kontratuaren prezioa eta haren berrikuspena. Kontratazioan eska daitezkeen bermeak. Kontratazio-espedientearen prestatzea. Kontratu txikiak. Administrazio-klausula partikularren agiria eta baldintza teknikoaren agiria. Kontratuak adjudikatzea. Kontratuen ondorioak. Administrazioaren prerrogatibak. Aldatzea, etetea eta azkentzea. Lagapena eta azpikontratazioa.
16. gaia: Obra-kontratuak: prestatzeko jarduketak, egikaritzea, aldatzea, betetzea eta suntsiaraztea. Obra-emakidako kontratuak: prestatzeko jarduketak, ondorioak, betetzea eta azkentzea.
17. gaia: Hornidura-kontratuak: arautzea, egikaritzea, betetzea eta suntsiaraztea. Zerbitzu-kontratuak: xedapen orokorrak, egikaritzea eta suntsiaraztea.



18. gaia: Administrazio-ekinbidearen formak. Sustapena eta bere bitartekoak. Dirulaguntzen azterketa berezia.

19. gaia: Derrigortze administratiboa: autotutoretza betearazlearen printzipioa. Administrazio-egintzak nahitaez betearaztea: horien bitartekoak eta erabilera-printzipioak. Zuzeneko derrigortze administratiboa.

20. gaia: Administrazio Publikoen zehatzeko ahalaren printzipioak. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zehatzeko ahala. Toki-erakundeen zehatzeko ahala.

21. gaia: Zerbitzu publikoa. Kontzeptuaren bilakaera. Zerbitzu publikoa eta prestazio administratiboak. Zerbitzu publikoa kudeatzeko moduak.

22. gaia: Administrazioaren ondare-erantzukizuna. Bilakaera eta egungo araubidea. Ordaintzeko moduko kalteak. Erantzukizunaren arloko administrazio-egintza eta -prozedura.

HIRUGARREN ZATIA

TOKIKO ADMINISTRAZIO-ZUZENBIDEA

1. gaia: Toki-araubidea: printzipio konstituzionalak. Tokiko autonomia eta tutoretza. Estatuaren oinarrizko legeria eta haren arau-garapena.

2. gaia: Toki-zuzenbidearen iturriak. Estatuaren oinarrizko erregulazioa eta autonomia-erkidegoen araudia toki-araubidearen arloan. Arloko legeriak toki-araubidean duen eragina.

3. gaia: Tokiko hauteskunde-sistema. Zinegotziak eta alkateak hautatzea. Zentsura-mozioa eta konfiantza-arazoa toki-eremuan. Hauteskunde-auzietako errekurtsua. Toki-korporazioetako kide hautetsien estatutua.

4. gaia: Udallerria. Toki-erakunde motak Espainiako zuzenbidean. Udal-mugartea. Udalerriko biztanleak. Auzokoaren kontzeptuaren aipamen berezia. Udal-errolatzea. Atzerritarren eskubideak.

5. gaia: Araubide erkideko udalerrien antolaketa. Beharrezko organoak eta organo osagarriak. Talde politikoak. Erregelamendu organikoa.

6. gaia: Tokiko gobernu-organoen bilkura-araubidea: deialdia, garapena eta erabakiak hartzea. Aktak. Dokumentuen erregistroa.

7. gaia: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea. Udallerrietako biztanleen betebeharrak eta eskubideak. Zerbitzu-kartak. Gobernu irekia. Gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte-hartzea.

8. gaia: Udal-eskumenak: zehatzeko sistema. Eskumen propioak, partekatuak eta eskuordetuak. Gutxieneko zerbitzuak. Zerbitzuen erreserba.

9. gaia: Beste toki-erakunde batzuk: mankomunitateak, eskualdeak eta metropolialdeak. Udalaren enpresak eta erakunde autonomoak. Partzuergoak.

10. gaia: Toki-erakundeen erregelamenduak egiteko ahala. Toki-erakundeen ordenantzak eta erregelamenduak. Motak. Egiteko eta onartzeko prozedura. Bandoak.

11. gaia: Toki-erakundeen ondasunak. Kalifikazio juridikoa aldatzea. Administrazioaren prerrogatibak. Jabari publikoko ondasunak erabiltzeko araubidea. Ondasunen inbentarioa.

12. gaia: Toki-erakundeen jarduteko moduak. Administrazioak jarduera pribatuan esku hartzea.

13. gaia: Lizentziak. Izaera juridikoa, araubide juridikoa eta emateko prozedura.

14. gaia: Zerbitzu publikoa toki-esparruan. Kudeatzeko moduak. Emakidaren aipamen berezia.

15. gaia: Enplegatutako publikoen kontzeptua eta motak. Funtzio publikoaren egitura. Enplegatutako publikoei buruzko estatuko eta autonomia-erkidegoko legeria.



16. gaia: Toki-erakundeen zerbitzura diharduten langileak. Motak eta aplikatu beharreko araubidea. Gaikuntza nazionala duten toki-administrazio langileak. Behin-behineko langileak. Tokiko zuzendaritzako langileak.

17. gaia: Enplegu publikoa antolatzeko tresnak. Lanpostua. Funtzioak erreserbatzea. Lanpostuen zerrendak. Aurrekontu-plantillak. Enplegu publikoa planifikatzeko tresnak. Enplegu publikoa antolatzeko planak. Enplegu publikoaren eskaintza. Beste tresna batzuk.

18. gaia: Enplegatu publiko izaera eskuratzea eta galtzea. Printzipioak eta betekizunak. Hautaketa-sistemak. Karrera profesionala. Lanpostuak betetzea. Funtzionarioen betebeharrak eta eskubideak. Eskubide ekonomikoak.

19. gaia: Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Administrazio-egoerak. Bateriaezintasunen araubidea. Funtzionarioen diziplina-araubidea. Zerbitzari publikoen erantzukizun zibila eta penala.

LAUGARREN ZATIA

ADMINISTRAZIO-ZUZENBIDE BEREZIA

1. gaia: Lurraldearen antolamendua. Horren arautzea Euskal Autonomia Erkidegoan. Lurraldea antolatzeko tresnak. Estatuko eta Autonomia Erkidegoko hirigintza-legeria. Aurrekariak eta indarrean dagoen legeria.

2. gaia: Lurzoruaren sailkapena: motak eta kategoriak. Kalifikazioa. Lurzoruaren jabetzaren araubidea. Eskubideak eta betebeharrak.

3. gaia: Lurzoru urbanizaezinaren araubidea. Lurzoru urbanizagarriaren eta hiri-lurzoruaren araubidea. Behin-behineko erabilerak. Partzelazioak eta birpartzelazioak.

4. gaia: Hirigintza-antolamendua eta lurralde-antolamenduarekin duen lotura. Hirigintza-plangintza: plan-motak eta horien izapidetzea. Egiturazko antolamendua: hiri antolamenduko plan orokorra. Plangintza orokorra bateragarri egitea. Sektorizatze-planak.

5. gaia: Antolamendu xehatua. Plan bereziak. Plan partzialak. Beste tresna batzuk (xehetasun-azterketak, udal-ordenantzak eta katalogoak).

6. gaia: Administrazioaren esku-hartzea lurzoruaren merkatuan. Lurzoruaren ondare publikoak. Udalez gaindiko esku-hartzea lurzoruaren merkatuan. Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak. Azalera-eskubidea.

7. gaia: Hirigintza-antolamenduaren esparrua. Kudeaketa-moduak eta aurrekontuak. Jarduteko sistema-motak.

8. gaia: Urbanizazio-proiektuak. Urbanizazio-obrak. Urbanizazio-obrak jasotzea.

9. gaia: Kontserbatzeko eta birgaitzeko betebeharra. Legezko aurri-egoera. Exekuzio-aginduak.

10. gaia: Hirigintza-legezketasuna kontrolatzeko mekanismoak. Hirigintza-legeketasuna bermatzea eta babestea. Hirigintza-ikuskapena. Hirigintza-antolamendua lehengoratzeko eragiketak. Hirigintzako arau-hausteak eta zehapenak.

11. gaia: Ingurumenean eragina duten jarduerak antolatzea, horietan esku hartzea eta berauek kontrolatzea. Esku hartzeko araubideak. Ingurumen-baimenak. Lizentziak eta alde aurreko komunikazioak. Ingurumen-ebaluazioa.

12. gaia: 10/2015 23 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jardueri buruzkoa.

13. gaia: Nahitaezko desjabetzea. Kontzeptua, elementuak eta izaera juridikoa. Prozedura orokorra. Presazko prozedura. Gainerako prozedura bereziak aipatzea. Berme juridikionalak. Desjabetutako ondasuna itzultzea.

14. gaia: Jabego publikoak: tipologia. Jabari publikoa: kontzeptua, izaera eta elementuak. Jabari publikoari eragitea eta hori aldatzea. Jabari publikoaren araubide juridikoa. Erabilera: erreserba eta emakida.

15. gaia: Administrazio publikoen ondare pribatua. Araubide juridikoa. Administrazioaren ahalak eta eskuratzeko, erabiltzeko eta besterentzeko araubidea.



16. gaia: Herritarren segurtasuna eta udaltzaingoa. Udaltzaingo-kidegoak. Funtzioak. Udaltzaingoen koordinazioa. Babes zibila. Suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuak.

17. gaia: Trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloko udal-eskumenak. Hiri barruko bideen erabileren udal-erregulazioa. Trafikoaren arloko zehapen-prozedura.

18. gaia: Toki-erakundeen eskumenak hiriko ingurumenaren arloan: parke eta lorategi publikoak. Kutsadura akustikoaren, argi-kutsaduraren eta kutsadura atmosferikoaren aurkako babesa.

19. gaia: Osasungarritasun publikoa babestea. Toki-erakundeen eskumenak osasunaren arloan. Hilerriak eta hileta-jarduerak. Hiletetako osasun-araudia. Jardueren gaineko ingurumen-kontrola.

20. gaia: Udalen esku-hartzea merkataritzan eta zerbitzu-jardueretan. Salmenta ibiltaria. Udalen esku-hartzea ikuskizun publikoetan, jolas-jardueretan eta establezimendu publikoetan.

21. gaia: Udal-eskumenak gizarte-zerbitzuen arloan. Udal-politikak gazteriaren eta genero-berdintasunaren arloetan. Bidaiarien garraio kolektiboaren arloko eskumenak.

BOSGARREN ZATIA

FINANTZA- ETA ZERGA-ZUZENBIDEA

1. gaia: Toki-erakundeen aurrekontu orokorra: kontzeptua eta edukia. Aurrekontua betearazi edo exekutatzeko oinarriari buruzko aipamen berezia. Aurrekontua egitea eta onartzea. Aurrekontua luzatzea.

2. gaia: Aurrekontuaren egitura. Gastuen aurrekontuko kredituak: muga, egoera eta lotura juridikoko mailak. Kreditu-aldaketak: motak, kontzeptua, finantzaketa eta izapidetzea.

3. gaia: Gastuen eta sarreraren aurrekontua betearaztea: faseak. Aurrekontuaren likidazioa. Justifikatu beharreko ordainketak. Kutxa finkoko aurrerakinak. Urte anitzeko gastuak. Gastuak aurretiaz izapidetzea. Gastu-proiektuak. Finantzaketa lotuko gastuak.

4. gaia: Aurrekontuaren likidazioa. Izapidetzea. Kreditu-gerakinak. Aurrekontuaren emaitza: kontzeptua, kalkulua eta doikuntzak. Diruzaintza-gerakina: kontzeptua eta kalkulua. Analisia: finantzaketa lotuko gastuetarako diruzaintza-gerakina eta gastu orokorreterako diruzaintza-gerakina. Aurrekontu-konsolidazioa.

5. gaia: Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna. Printzipio orokorrak. Aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauren helburuak toki-korporazioetan: horiek ezartzea eta ez lortzearen ondorioak. Plan ekonomiko-finantzarioak: edukia, izapidetzea eta jarraipena. Doikuntza-planak eta finantzak onbideratzeko planak. Toki-erakundeei buruzko finantza-informazioa ematea.

6. gaia: Toki-erakundearen diruzaintza. Araubide juridikoa. Kutxa bakarraren printzipioa. Diruzaintzaren eginkizunak. Antolaketa. Funtsen egoera: kutxa eta banku-kontuak. Ordainketak egitea: ordainketen hurrenkera eta prozedurak eta ordainbideak. Ordaintzeko epeak betetzea: ordaintzeko batez besteko aldia. Berdinkatzeko egoera-orria.

7. gaia: Zerga-zuzenbidea. Zergei buruzko Lege Orokorraren, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren, esanahia eta printzipio inspiratzaileak. Zerga-arloko arau-hausteak eta zehapenak.

8. gaia: Toki-ogasunen baliabideak. Tokiko zergak: printzipioak. Tasak, prezio publikoak eta kontribuzio bereziak. Toki-erakundearen ahala zergen arloko erregelamenduak egiteko: ordenantza fiskalen edukia, zergak ezartzeko eta antolatzeko egintzak izapidetzea eta aurka egiteko araubidea. Zergaz besteko baliabideak ezartzea.

9. gaia: Toki-ogasunen baliabideak kudeatzea, likidatzea eta biltzea. Diru-sarrera bi-degabeak. Diru-bilketaren kudeaketa borondatezko aldiak eta aldi exekutiboan.

10. gaia: Zergak kudeatzeko toki-erakundearen egintzak administrazio-bidean berrikustea. Baliabideak beste erakunde publiko baten bitartez kudeatzea eta biltzea. Administrazio-errekurtsoak eta erreklamazio ekonomiko-administratiiboak.



11. gaia: Ondasun higiezinaren gaineko zerga. Katastro-kudeaketa eta zerga-kudeaketa. Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga.

12. gaia: Ekonomia-jardueren gaineko zerga. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.

13. gaia: Tasak eta prezio publikoak. Desberdintasun nagusiak. Kontribuzio bereziak: kuotak aurreratzea eta geroratzea eta herritarren laguntza izatea.

14. gaia: Toki-erakundearen eta beren mendeko entitateen jardueraren ekonomiko-finantzarioaren barneko kontrola. Kontu-hartzailearen funtzioa: eremu subjektiboa, eremu objektiboa eta modalitateak. Aipamen berezia eragozpenei. Eraginkortasunaren eta efizientziaren finantza-kontrolak.